



Orain dela gutxi bukatu dut etxearen hipoteka ordaintzen, eta hura kitatzeko paperak prestatzen ari da bankua. Entzun izan dut notario batzuek behar baino gehiago kobratu izan dutela eragiketa hori egiteagatik, eta gustatuko litzaidake jakitea zenbat kobra dezaketen eta zer egin dezakedan gehiegizkoa iruditzen bazait.

2011. urteko azaroan, murriztu egin zituzten notario- eta erregistro-arantzelak, eta, ondorioz, notarioak 30,05 euro jasotzen zituen hipoteka-maileguak kitatzeko eskriturak egiteagatik. 2012ko maiatzean berriz aldatu zuten, eta hipotekaren zenbatekoaren araberakoa izango dela erabaki zuten; beraz, hipoteka zenbatekoa, ordaina hainbestekoa. Erregistroen eta Notaritzaren Zuzendaritza Nagusiaren araberakoa, kapital bermatuaren % 70a oinarritzat

hartu eta hari ezartzen zaio arantzela (90 eurokoa izango da, gutxienez). Zenbait autonomia erkidegotan, notarioen elkargoek izaten dute kontsumitzaileei erantzuteko zerbitzua gisa horretako zalantzak argitzeko.

Notarioak eskatzen duen ordainari gehiegizkoa iritzi eta aurka egin nahi izanez gero, notarioari berari aurkeztu behar zaio, ordaindu eta hurrengo hamabost lanegunetako epean.



Mugikor bat erosi nuen orain dela hilabete batzuk, 150 euro ordainduta, baina denbora baten buruan bateriak utzi egin zion ongi kargatzeari. Erosi nuen dendan esaten didate telefonoa ongi dagoela eta bateria kargatzeko konektorea dabilela gaizki. Gainera, ez didate kargagailua ordezkatu nahi, bermea telefonoari soilik dagokiolako. Hala al da? Egin al dezaket erreklamaziorik?

Saltzailea behartuta dago bezeroek eta biek sinatu duten kontratuan hitzartzen diren produktuak ematera. Ondasunak ongi funtziona dezan eragozten duten elementu guzti-guztientzat balio du bermeak, eta ezin da bereizketarik egin terminalaren eta konektorearen artean. Adibide gisa balio dezake Bartzelonako Probintzia Auzitegiak 2008ko martxoaren 12an emandako epaiak: PDA batengatik ordaindutako diru guztia itzuli behar izan zioten beze-

roari konektorea matxuratua zegoelako. Har itzazu kontuan epeak; erosi eta hurrengo bi urteetan egindako erreklamazioak bere gain hartu behar ditu saltzaileak, nahiz eta lehenbiziko sei hilabeteetan gertatzen diren matxurak soilik hartzen diren berez jatorrizko gisa. Aurkez ezazu erreklamazio-orri bat, eta bide horretatik deus ere lortzen ez baduzu, jo ezazu kontsumo-arbitrajera.

## DUDA LEGALAK

consultoriolegal@consumer.es

Legearekin zerikusirik duen dudarik izanez gero, emaila bidali dezakezu aldizkari honetara. Kasu bakoitzaren aukerak aztertu ondoren, EROSKI CONSUMERen zerbitzu juridikoek gehien komeni den aholku juridikoa emango dute. Hala ere, orientabidea baino ez dute eskainiko. Lege kontuak konplikatuak dira eta epaian zein epaibidean eragiten duten era askotako elementuak hartu behar dira kontuan, kasuan kasu. Gogoratu, bestetik, kasu bakoitzari emango zaion erantzun bakarra orrialde hauetakoa izango dela.

## ANTZEKO KASUETAN, EPAIAK DESBERDINAK IZAN DAITEZKE

Atal honetan era askotako zerbitzu eta hondasunei buruzko epaiak jaso ditugu, kontsumitzaileen intereseko izan daitezkeelakoan. Baina epaiak ematerako orduan ezin dira bi kasu, antzekoak izanagatik ere, bere horretan konparatu eta epaia berdina izango dela pentsatu. Kasu bakoitzean dauden frogak, alde bakoitzaren egoera zehatzak eta epaimahaiaren osaerak, besteak beste, halako edo bestelako epaiak ematea eragingo du.



## SALAKETA JARRI DUTE SOFA SALDU DIENAREN AURKA, ALERGIA DELA ETA

### Sofa bat erosi, eta alergia eta kalte fisikoak izan ditu

Emakume batek sofa bat erosi zuen, eta *dimetilfumarato* izeneko produktu baten eraginez (poltsa txiki batzuetan sartuta zegoen sofaren tolesduretan, lizunik ez agertzeko), ospitalera eraman behar izan zuten: eritema, hantura eta lesio besikulosoak izan zituen, eta berotasun eta oinaze handiak. Salaketa jarri zuen saltzailearen eta haren aseguru-etxearen aurka, eta 16.000 euro ordaintzera zigortu zituzten biak. Madrilgo Probintzia Auzitegiaren esanetan (2012ko urriaren 29koa da epaia), 2009. urteko maiatzaren 1etik aurrera galarazita dago *dimetilfumaratoa* erabiltzea, eta sofa lehenago erosi bazen ere, Europak Biozidei buruz 1998an ateratako Zuzendaritza galarazia zeukan substantzia hori funtzionatzen gisa erabiltzeko aukera. Gainera, salatuek ez zuten frogatu ekoizleak bere garaian azterketak egin zituela *dimetilfumaratoak* izan zitezkeen eragin toxikoak neurtzeko, eta ez zuten justifikatu produktua salgai jarritako garaian zeuden ezagutza zientifiko eta teknikoek eraman zituztela azterketa horiek ez egitera.

## PLANO GAINEKO ETXEBIZITZA

### Planoan ikusita erosi zuen etxebizitza bat urbanizazio batean, eta urbanizazioa egin gabe zegoela sinarazi nahi izan zioten eskritura



Herritar batek etxe bat, garajeko toki bat eta trasteleku bat erosi zituen egoitza multzo bat eraikitzen ari ziren lekuan, eta lanak hasi eta 30 hilabeteko epean emango zizkiotela agindu zioten. Bere blokea bukatu zutenean, eskriturak sinatzera joan zedila eskatu zion sustatzaileak, baina bezeroa ez zen joan, eta sustatzaileak salaketa jarri zuen haren kontra: salmenta-eskritura emateko hitzordura azal zedila eskatu zion eta falta zen dirua ordain ziezaiola. Baina sustatzaileak galdu egin zuen epaiek, kontratua baliorik gabe geratu zela erabaki baitzuen epaileak, eta, ondorioz, jarritako dirua itzuli egin behar izan zion erosleari (13.000 euro baino gehiago). Izan ere, Asturiasko Probintzia Auzitegiak 2012ko urriaren 29an emandako epaiak esaten du publizitateak goi mailako egoitza multzo bat agintzen ziela erosleei, bide zabalak zituena, eremu berdeak eta orientazio bikaina eguzkiari etekin guzti-guztia ateratzeko. Bezeroak erosi zuen etxebizitza ezin zen bereizi gainerako elementu guztietatik, eta sustatzaileak ez zuten frogatu ez haiek guztiak eraikita zeudela ez lize gabe eraikiko zituela.

## BERANDUTZE-INTERESAK



### Valentziako epaileek ofizioz baliogabetu dituzte ondasunei edo zerbitzuei dagozkien maileguak berandu ordaintzeagatik edo ez ordaintzeagatik eran-tsitako interesak, % 16tik gorakoak direnean

Valentziako auzitegi-barrutiko Lehen Instantziako epaileen batzarrak erabaki du ofizioz baliogabetuko dituela diruaren interesa baino 2,5 aldiz handiagoak diren interesak ordaintzera behartzen duten zigorrak kontu korrante batean dirua zorretan uzteagatik (muga hori ezartzen du Kontsumorako Kredituari buruzko Legeak). Eta legeak ez duenez esaten gehienez zenbateko zigorra jar dakioken kontsumitzaileari berandu ordaintzeagatik edo ez ordaintzeagatik, eta, gainera, lege horretatik kanpo geratzen direnez mailegu pertsonalak eta hipoteka-maileguak, epailei iruditu zaie egokia dela muga bat jartzea klausulak neurritz kanpokoak noiz diren erabakitzeko: diruaren interesa lau aldiz gainditzen dutenak eta hortik gorakoak joko dituzte halakotzat. Hau da, kontsumitzaile eta erabiltzaileek berandu ordaintzeagatik edo zorra ez ordaintzeagatik jasotzen duten zigorra % 16tik gorakoa denean, Valentziako auzitegi-barrutiko epaileek gehiegizkotzat joko dute, diruaren interesa % 4koa da-eta uneotan. Ondasunen eta zerbitzuen kontsumoari dagozkien prozedura guztiei eragingo die erabaki horrek.